

Informazio garrantzitsua armairu hustearentzat

2024 urteko apirilaren 13an izanen den Eusko Eguneko armairu hustean, Ezpeletako patronaia gela aintzinean espazio bat kitorik izanen duzu zure jantziak saltzeko. Merkatua goizeko 10etatik arratsaldeko 4ak arte izanen da.

Logistika aldetik, materialari dagokionez erakusketari bakoitzari autonomoa izan dadin eskatzen diogu (mahain, kadira, barnum...). Hala ere, materialik ez baduzu, erraiguzu izen emaite orrian. Gure materiala erakusketari batzueri prestatzen ahalko dugu, baina ez guztieri.

Erakusketari bakoitzak 3 metro lineal izanen ditu bere erakusmahaina muntzatzeko.

Egun horretan euskoa balorizatzeko, euskoak onartzea eskatzen dizugu (nahiz eta euroak ere onartuak izanen diren). Hortaz, hurrengo gauzak hartzeko eskatzen dizugu :

- Euskoz osaturiko kutxa bat, eusko billeteen ordainketen dirua itzuli ahal izateko
- Kondu numerikoa baldin baduzu, zure eusko karta ekarri bezeroek zure QR kodea flashatu ahal dezaten eta euskopay bidez ordaintzeko

Ez bazira oraindik Eusko kidea, egizu zuzenean gure webgunetik :

<https://www.euskalmoneta.org/nola-hasi/?lang=eu>

Egunean bertan, deskargatu eta autoa uzteko, ondorengo kontsignak errespetatzeko eskatzen dizugu antolekta errexteko maneran :

- Erakusketarien iristea 8ak eta 9:15 artean
- Erakusmahainen instalazioa patronaia gela aintzinean
- Zuen ibilgailua utzi horretarako prestatua den aparkalekuan.

Informazio gehiagorentzat : 05 33 47 54 11